

BALIO PROPOSAMENA

Jatetxe askotan bezeroek ez dute haiek eskatutako platerren kantitateak ezta kalitatea kontrolatzeko aukerarik izaten, sarritan menu merkeetan aurki ditzakegun lehengai motak ez dira lehen mailakoak. Horregatik batzuk nahiago dute, bere etxean prestatutako janaria tupper batean eramatea laneko atsedenaldira jateko. Hori gerta ez dadin, guk eguneroko **bazkaria eta afaria** erosi eta kontsumitzeko aukera eskainiko dugu Tupperak erabiliz.

Lanean bazkaltzen duten enpresei eta langileei zuzenduta dago. Bulegoetarako kantina birtual gisa funtzionatzeko aukera eskainiko dugu, bai enpresak eskatzen badu, bai langileak badira gure zerbitzua erosten dutenak.

Egunero prestatzen dugu janaria, eta bezero bakoitzaren lantokira eramaten dugu. Aste osorako edo egun solteetarako **menuak** aukera ditzazkete. Etxeko jakiak prestatzen ditugu, eta hala udako nola neguko karta dugu, baita sukaldaritza begetarianoko plater bereziak ere. Askotariko menu osasungarriak, sukaldari profesionalek prestatuak. «Etxez etxeko» menuak eskainiko ditugu, banatzaile batek bere lantokian bezeroari ematen dizkionak. Entsaladak, etxeko janaria, hanburgesak, pizzak, eskaintza zabala da.



Lehen esan dugunez, **enpresekiko harremana** ezinbestekoa izango da, gure proiektua aurrera ateratzea nahi badugu, eta horretarako hainbat enprekin harremanetan jarriko gara gure zerbitzua enpresako osoko langileei eskaintzeko. Horrekin batera, 10 pertsona baino gehiagoko enpresak gure zerbitzuak kontratatzen badute, %20ko deskontua jasoko dute.

Egun bakoitzeko edo aste bakoitzeko menua hautatzeko aukera emango dugu, **APP** baten bitartez, Play Store-n eta App Store-n erabilgarria egongo dena. Aplikazio hau egun bakoitzeko



janariaren osagaiak aukeratzeko balio izango du eta bi zatitan banatuko dugu, alde batetik enpresako profila eta beste aldetik banakako profila.



Gure senea **Zamudioko Parke Teknologikoan** ipiniko dugu. Bertan lan egiten duten 10988 langileei eta bertan dauden 282 enpresa baino gehiagoei eskaintza emateko. Honen abantaila, janaria goxoa eta beroa langile askoren esku jartzea da. Hala ere, gure senea eta jatetxea Zamudion egon arren, Bizkaiko beste 20 herri baino gehiagotan kontratatzeke aukera izango dute.

Gure bezeroak beraiein lantokietan bazkaltzeko tartea dutenean, beraiein janaria prest izan behar dutela uste dugu, faktore hau ezinbestekoa da beraiek gure eskaintza aukera hobereana dela ikusteko. Hori da gure zerbitzuari desberdintzen dion balioa; erosotasuna, denbora eta kalitatea saltzen baitugu.

Gure helburua da gure bezeroek edozein modutan denbora aurreztu ahal izatea, aurreko egunean kezkatu beharrik ez izateko, edo baita goizean bertan ere, beren tupper propioa prestatu eta prestatzeko.

Ahaztu tuperraz eta biharamuneko bazkaria gauean prestatzeaz!







MENUA

Eguneroko menua
Astelehenetik-Ostiralera arte
eskaintako menua

HASIERAKOAK

*Urdaiazpiko razio erdia
Antxoen kanapeak oliba beltzekin
Tostak sobrasada eta auntz-gaztarekin
Urdaiazpiko, gazta eta ananazko kanapeak*

BIGARREN PLATERAK

*Espaguettiak ilar berdeekin eta
urdaiazpiko iberikoarekin
Pintxoko legatza eta kokotsa pil-pilean
Izokina tenperatura baxuan zainzurien
kremarekin*

POSTREAK

*Greziako jogurt-krematsua eta
txokolate zuria, gerezi-glaseatuarekin
Lima-kremazko tartaleta mugurdiekin
Anana iragazia
Txokolateguz bustitako frutak*

PROMOZIOA

€ 10⁹⁹

PERTSONA BAKOITZEKO PREZIOA,
EDARIAK KONTATU GABE